# La tómbola solidaria de Ermua abrirá sus puertas el próximo miércoles

**Las voluntarias entregarán más de 2.000 premios, teniendo en cuenta que de media hay un regalo por cada 5 boletos**

:: AINHOA LASUEN

**ERMUA.** La tómbola solidaria de Ermua repartirá este año más de 2.000 regalos entre las personas que se acerquen a su local de la calle Erdikokale. La tienda abrirá y pondrá en marcha su actividad a partir del miércoles, día 12 de diciembre, a las 17.00 horas.

Esta iniciativa, tradicional en las fechas navideñas del municipio, destina su recaudación a proyectos humanitarios en los que trabajan ermuarras en todo el mundo. Al igual que en las últimas campañas, parte de la recaudación se destinará a ayudar a familias locales necesitadas, puesto que los responsables de la actividad no se abstraen al momento de necesidad que se vive en la sociedad local.

Como en anteriores ediciones, la tómbola permanecerá abierta en horario de mañana y tarde, hasta que se consigan entregar todos sus regalos.

Parte de estos premios se pueden encontrar ya en el escaparate de la tienda que han preparado las voluntarias de la organización.

Gracias a la labor de las mujeres voluntarias que trabajan en esta iniciativa, cada año se recoge un mayor número de materiales y objetos.

Las personas que deseen entregar materiales podrán hacerlo durante estos días, preferiblemente antes de que comience la actividad, en la misma tienda.

El funcionamiento de esta tómbola consiste en la compra de unos boletos, al precio de un euro cada uno, y allí mismo se conoce si ha tocado algún artículo o no.

Hay que tener en cuenta que aproximadamente por cada 5 boletos saldrá un premio. Entre los productos expuestos en el local y que pueden tocar gracias a un boleto premiado destacan los que han sido elaborados a mano por las mujeres que colaboran con la iniciativa durante todo el año.

Por otra parte, se volverá a repetir la iniciativa de los 'premios de consolación'. Las personas que participen y no les toque regalo en ese momento no deben perder la esperanza, puesto que estos boletos no premiados se introducen en una caja en la que posteriormente se realizará un sorteo. Estos premios serán importantes y se mostrarán al público durante todos los días que dure la iniciativa.

Además, en este último caso, no será necesario mirar ningún número porque las organizadoras llaman por teléfono a la persona agraciada.

## Voluntarias

El trabajo de las organizadoras, además de preparar y atender la tómbola durante los numerosos días en que permanece abierta, consiste en elaborar, durante todo el año, algunos de los artículos que se sortean en la tienda.

Para ello se reúnen todos los martes y crean las pequeñas obras de arte que posteriormente se colocan en las estanterías de este local. Además recogen y buscan todos los regalos que les aportan, los días precedentes, tanto comerciantes como donantes particulares. Durante el año también seleccionan, etiquetan y envuelven todos los productos que se sortean en estas fechas.


Voluntarias atendiendo a participantes en la tómbola del año pasado. :: AINHOA LASUEN

### LA TÓMBOLA

- **Apertura.** El próximo miércoles 12 de diciembre.
- **Boletos.** A un euro, y una quinta parte de ellos está premiado.
- **Premios.** La tómbola tiene previsto repartir más de 2.000 premios este año.

# Hoy se ofrecerá una charla sobre la situación del Rif en Izarra Centre

:: AINHOA LASUEN

**ERMUA.** La Asociación local de vecinos de origen magrebí Etorki(n)zuna y el servicio municipal de Cooperación Internacional e Inmigración han organizado para hoy una charla y un posterior debate sobre en el que se analizará la actual situación del Rif. La charla llevará a cabo en el auditorio de Izarra Centre, a partir de las 17.30 horas. El ponente será Saloua El Omari.

Cabe destacar que el 48% de la población de origen extranjero residente en Ermua es de origen marroquí, y entre estas personas el 90% proceden de la región del Rif.

Se trata de una región con zonas montañosas y zonas verdes del norte de Marruecos, con costa en el Mediterráneo, que abarca desde la región de Yebala hasta Kebdana (Nador) en la frontera con Argelia.

## Etorki(n)zuna

En 2016 un grupo de jóvenes de origen rifeño crearon una asociación, Etorki(n)zuna, con el fin de contribuir con sus iniciativas y proyectos al reconocimiento y promoción de su comunidad favoreciendo la integración, la comunicación, el intercambio y participar así en clave intercultural en la convivencia con el resto de vecinos y vecinas del municipio de Ermua.

Esta asociación, Etorki(n)zuna, celebra desde el pasado 2017 el Nuevo Año Amazigh y prepara la actividad para el próximo mes de enero. Como anticipo a estas ceebraciones han organizado esta actividad a la que está invitada toda la población ermuarra.

Su nombre Etorki(n)zuna reúne los dos conceptos de inmigrantes y futuro, en una misma palabra.

## TELÉFONOS DE INTERÉS

**URGENCIAS**

| | |
|---|---|
| SOS DEIAK | 112 |
| DYA | 943 464 622 |

**HOSPITALES**

| | |
|---|---|
| Hospital Mendaro | 943 032 800 |
| Ambulatorio de Eibar | 943 032 500 |
| Ambulatorio de Eibar (Torrekua) | 943 032 650 |
| Ambulatorio de Ermua | 943 032 630 |

**POLICÍA MUNICIPAL**

| | |
|---|---|
| Eibar | 943 708 424 |
| Ermua | 943 176 300 |

**ERTZAINTZA**

Eibar 943 531 700

**BOMBEROS** Toda la provincia 112

**TRANSPORTES**

| | |
|---|---|
| Euskotren | 902 543 210 |
| Pesa Eibar | 902 101 210 |
| Bizkaibus | 902 222 265 |

**TAXIS**

| | |
|---|---|
| Eibar | 943 203 071 y 943 201 325 |
| Ermua | 943 170 396 |

**AYUNTAMIENTOS**

| | |
|---|---|
| Eibar (Centralita) | 943 708 400 |
| Eibar (Oficina de información a la Ciudadanía. Pegora) | 010 |
| Ermua | 943 176 322 |

* EL CORREO no se hace responsable de cambios de última hora

## CARTELERA DE CINE

### EIBAR

**COLISEO** Merkatu Kalea, 2

| | |
|---|---|
| **Los cinco y el valle de los...** | 17.00 |
| **Viudas** | 17.00 - 19.45 - 22.30 |
| **Durante la tormenta** | 17.00 - 19.45 - 22.30 |
| **Superlópez** | 19.45 - 22.30 |

### ERMUA

**ERMUA ANTZOKIA** Iparragirre s/n

| | |
|---|---|
| **La buena esposa** | 19.30 |
| **Millenium: Lo que no te mata...** | 22.00 |

## COMUNICACIONES

### AUTOBUSES

**EIBAR-SAN SEBASTIÁN**

Laborables: 6.10*, 6.40*, 7.10*, 7.40, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 21.10 cada hora, 13.05*, 18.10*, 19.10*.
Sábados: 6.40*, 7.10*, 8.10, 8.45*, 9.15*, de 10.10 a 17.10 cada hora, 13.15*, 15.10*, 16.10*, 18.10*, 19.10*, 20.10*, 21.30, 23.10.
Festivos: 8.10, 10.10*, 12.10, 13.10, 15.10*, 17.10, 18.10, 19.10* y 21.45*.
*Salida desde Ermua diez minutos antes

**SAN SEBASTIÁN-EIBAR**

Laborables: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 14.20 cada hora, 11.20*, 14.30*, 14.50*, 15.20*, 16.20*, 17.20, de 18.20* a 22.20* cada hora.
Sábados: 6.50, 7.20*, 7.50*, de 8.20 a 21.20* cada hora, 11.20*, 14.20*, 16.20*, 17.20*, 18.20*, 19.20*, 22.35* y 00.20.
Domingos y festivos: de 9.20*, 11.20*, 13.20, 14.20*, 16.20*, de 18.20* a 20.20* cada hora, y 22.20*.
*Llegada a Ermua

**EIBAR-BILBAO** (Autopista)

De lunes a sábado: Desde las 6.40 hasta las 20.40 cada hora. Domingos y festivos: Desde las 7.40 hasta las 21.40 cada hora.

**BILBAO-EIBAR** (Autopista)

Laborables: De 6.40 a 21.40 cada media hora.
Sábados-festivos: 7.40 a 21.40 cada media hora.

**EIBAR-VITORIA**

Laborábles: De 7.00 a 21.00 cada hora y a las 6.15, 10.15, 14.15 y 18.15.
Festivos: 8.45, 12.45, 16.45, 20.45.

**VITORIA-EIBAR**

Laborables: De 6.30 a 20.30 cada hora y a las 7.15, 8.00, 12.00, 16.00 y 20.00.
Festivos: 10.30, 14.30, 18.30 y 20.30.

**EIBAR-PAMPLONA**

Laborables y festivos: 7.45

**PAMPLONA-EIBAR**

Laborables y festivos: 11.00.

**EIBAR-ARRATE**

Sábados y laborables: 14.00.
Festivos: 9.00, 10.00, 11.00, 13.00 y 18.00.

**ARRATE-EIBAR**

Sábados y laborables: 14.30.
Festivos: 9.30, 10.30, 11.30, 13.30 y 18.30.

**EIBAR-ELGETA**

Laborables: 6.30, 8.30,11.00, 13.30, 15.30, 16.30, 18.30 y 20.30
Festivos: 8.30, 11.30, 13.30, 15.30 y 20.30.

**ELGETA-EIBAR**

Laborables: 6.50, 8.50,11.20, 13.50, 15.50, 16.50, 18.50 y 20.50
Festivos: 8.50, 11.50, 13.50, 15.50 y 20.50.

**EIBAR-HOSPITAL MENDARO**

Lunes a viernes: 6.20, 7.05 (de 7.05 a 22.35 cada media hora).
Sábados: De 7.00 a 21.00 cada hora.
Domingos: de 8.00 a 21.00 cada hora.

**HOSPITAL MENDARO-EIBAR**

Laborables: De 6.45 a 21.15 cada media hora.
Sábados y festivos: De 7.45 a 20.45 cada hora.

### TRENES

**BILBAO-EIBAR**

Laborables: 5.57. Diario: (De 6.57 a 20.57 cada hora), 9.34 y 20.34.
Sábado noche: 23.50, 1.50, 3.50 y 5.50.

**EIBAR-BILBAO**

Laborables: 6.13, 7.13. Diario: (De 8.13 a 22.13 cada hora), 10.36 y 21.36. Noches: 2.05, 4.05, 6.05 y 7.29,

**ERMUA-BILBAO**

Laborables: 6.19 y 7.19. Diario: De 8.19 a 21.19 cada hora.

**SAN SEBASTIÁN-EIBAR**

Laborables: 5.47, 6.47. Diario: De 7.47 a 20.47, cada hora, 9.20 y 20.20.

**EIBAR-SAN SEBASTIÁN**

Laborables: 6.13 y 7.13. Diario: De 8.13 a 22.13 cada hora, 10.35 y 21.35.

## FARMACIAS

**EIBAR**

De 9.00 a 22.00: Zulueta (San Agustín, 5).

**ERMUA**

De 9.00 a 22.00: Alberdi (Zubiaurre, 9). De 22.00 a 24.00: Alberdi (Zubiaurre, 9).

**EIBAR-ERMUA )**

Noche. De 22.00 a 9.00: Lafuente (Sostoatarren).

# hemendik eta handik

Coordinación Hemendik: Janire Jobajuria

Si desea ver sus fotos, quejas, sugerencias... en esta sección, **envíe la colaboración** junto a sus datos personales (nombre, domicilio, DNI y teléfono) a **Capuchinos de Basurto 6, 5º C 48013-Bilbao** o al correo electrónico **hemendik@deia.com** Sus datos únicamente serán utilizados para este fin. Para felicitar un cumpleaños, será necesario enviar 24 horas antes una foto del homenajeado junto a su nombre, los años que cumple y quién le felicita a **secredaccion@deia.com**

## ZORIONAK



**1918 María Urquijo** Zorionak a una de las centenarias de Gordexola de parte de sus seres queridos y el Ayuntamiento de la localidad. La alcaldesa, Ángela Eguia, y la concejala Begoña Venegas le entregaron una placa con motivo de su 100 cumpleaños el pasado 4 de diciembre.



**Javier Larraskitu Gastañaga** ¡Zorionak al mejor baserritara del barrio Atxuri de Mungia por tu cumpleaños y por la nueva etapa que empiezas!



**2010 Amets** Zorionak, nire txikitxu alaitsuena! 8 urte eta boleibolaren fenomeno bat ba dator! Musu handi bat. Izeko Marga.

## VENTANA A LA CALLE







### Ermua se sumerge en el encanto navideño con la característica iluminación

Apenas faltan unos días para que Olentzero cumpla con las ilusiones de miles de niños, que esperan con ansia al día de Navidad y comprobar que el carbonero ha logrado completar su larga lista de deseos. Para ir calentando motores y que el espíritu navideño impregne todos los rincones de la localidad, el Ayuntamiento de Ermua ya ha dado el pistoletazo de salida a las fiestas con el tradicional encendido de la iluminación navideña, que traslada a los vecinos a un mundo mágico y lleno de fantasía. Y para convertir este acto en un acontecimiento todavía más especial, el arranque de la temporada navideña estuvo acompañado por una chocolatada impulsada por la asociación de comerciantes local, que hizo las delicias de los asistentes. – *Fotos: Ayto. de Ermua*

GRATIS

CLASIFICATÚ

TODOS LOS DOMINGOS TUS ANUNCIOS CLASIFICADOS DE INMOBILIARIA Y MOTOR

Anunciarse no cuesta nada, llame al 94 459 91 31 - 94 459 91 15. O envía un correo a clasificatu@deia.eus de 9:00h a 14:00h y de 16:30h a 19:00h

Deia

# ortzadar

larunbata, 2018ko abenduaren 8a. 572. zenbakia

deia.eus/ortzadar

**euskal kulturaren kolore guztiak**




## SU TA GAR

Taldearen 30. urteurrena ospatzeko kontzertu bira egingo dute urtea amaitu bitartean

-- 4-5. orrialdeak --

# Su Ta Gar: 30 urteko atzera bidaia

Hiru hamarkada igaro dira **Su Ta Garrek** bere lehen kontzertua eskaini zuenetik eta, urtemuga ospatzeko, bira berezia antolatu dute. Maketako eta lehen bi diskoetako kantak berreskuratuko dituzte, baita argitaratu gabeko ikus-entzunezko materiala ere

ETXAHUN GONZALEZ

1988ko abuztuaren 14a, Ondarroako jaiak. Eibarko talde gazte batek jo berri du Gaztetxean. Su Ta Gar du izena. Hogeita hamar urte pasa dira kontzertu hartatik. Hiru hamarkada horietan, Euskal Herriko heavy metal talde esanguratsuena izateko merituak egin ditu Su Ta Garrek. Estilo ezberdineko dozenaka euskal talderen iturburu eta inspirazio-iturri, euskal musikaren historia bizia da talde eibartarra. Bada inor *Jo ta ke* ezagutzen ez duenik? *Nik ez diat inoiz esango, hire egin beharra zein den. Nik aspaldi egin nian aukera, jo ta ke, irabazi arte!*

Hiru hamarkada hauetan 1.000 kontzertutik gora eman ditu Su Ta Garrek, Euskal Herrian, Espainian, Europan eta baita Ozeano Atlantikoaren beste aldean ere. Eta hori ospatu beharra dago. Nola? Ba ondoen dakiten bezala, zuzenekoen bidez. Bederatzi kontzertu berezi prestatu dituzte hogeita hamargarren urteurrena ospatzeko. Madrileko Caracolen ekin zioten birari, urriaren erdialdean, eta Bilboko Santana aretoan bukatuko dute, abenduaren 28an.

**DENBORAN BIDAIA** "Bira honetan ez dugu gure 30 urteko ibilbidearen berrikuspenik egingo. Denboran bidai bat izatea nahi dugu. Hogeita hamar urte atzera egitea, eta ez ikuspuntu nostalgiko batetik, gaur egungo ikuspuntutik baizik. Gure sorrera gogora ekarri eta ahal den heinean, garai hura bizi ez zutenengan transmisio lana egin nahi dugu", dio Aitor Gorosabelek, taldeko ahots eta gitarrajole mitikoak. Hain zuzen ere, Su Ta Garren lehen maketa (1987-89) eta *Jaiotze Basatia* (1991) lehen diskoa osorik joko dituzte kontzertuetan, baita *Hortzak Estuturik* bigarren diskoko kanta batzuk ere.

Bestetik, lehenago argitaratu gabeko taldearen hastapenetako bideo eta argazki sortak prestatu dituzte oholtza gainean erakusteko: "ezagutu ez gintuztenek ikusi ahalko dute nolakoak ginen eta zelako kontzertuak ematen genituen duela hogeita hamar urte". Garai hartako ametsak amets izaten jarraitzen du taldearentzat:"30 urte eta gero errepidean jarraitzen dugu. Zoriontasun horri helduta prestatutako bira egin nahi dugu", azaldu du Gorosabelek.

Madril, Atarrabia, Bartzelona, Durango, Donostia, Berlin, Miarritze, Gasteiz eta Bilbo dira birarako aukeratutako tokiak. Orain arte emandako kontzertuetan lepo bete dituzte zapaldu dituzten aretoak, eta aurrera begira ere, agortzear daude zuzenekoetako sarrerak.

**EUSKAL METALAREN LEHEN DOSIAK** Gitarra zorroztu eta kirrinkariak, zur eta lur uzteko *solo*-ak, baxu bizkorra eta lehen euskal bateria izarra. 20 urterekin, euskal heavy metalaren lehen dosiak aurkeztu zituen Eibarko laukoteak Euskal Herrian. Hain zuzen ere, sugar hori pizteko ardura hartu zuten Aitor Gorosabelek, Xabi Bastidak, Borxa Arrillagak eta Asier Osorok. 80ko hamarkadaren amaieran kasetean grabatutako maketak agerian utzi zuen Su Ta Gar kalitate eta teknika handiarekin jaioa zela: *Basamortuetako zalduna* abestia egin zuten orduan, gaur egun ere taldearen abesti onenetakoa, askorentzat.

Maketaren arrakastak lehen diskoa argitaratzeko bidean jarri zituen eibartarrak, baina hura ekoitzi baino lehen, taldearen beste mugarrietako bat grabatu zuten: Mikel Laboaren *Haika mutil* kantaren bertsioa.1990ean argitaratutako *Txerokee, Mikel Laboaren kantak* euskal kantautorearen omenezko albumean parte hartu zuen Su Ta Garrek, Negu Gorriak, Delirium Tremens edota Tapia eta Leturiarekin batera. Euskal abesti herrikoiaren moldaketa heavyak oihartzun handia izan zuen Euskal Herrian eta taldearen zuzenekoetan nahitaezko kanta izaten jarraitzen du egun.



## 'SU TA GAR 30 URTE'

KONTZERTU BIRA

**Abenduak 8**:
Berlin (Clash) + Rat-Zinger + Antiligent
**Abenduak 15:**
Miarritze (Atabal)+ Iron Maider + The Helletrick Devilz (sarrerak agortuta)
**Abenduak 22**:
Gasteiz (Jimmy Jaz) + Wood Strings
**Abenduak 28:**
Bilbo (Santana Aretoa) + Aurtz

**EUSKARA LEHEN LERROAN** Euskal Rock Erradikalak utzitako haziak musika estilo anitzetan loratu ziren 90eko hamarkadan, eta euskara euskal musikaren lehen lerrora itzuli zen. Negu Gorriakek, adibidez, hip-hop, rock, ska eta bertso-hop proposamenak taularatu zituen eta 1990eko azaroan, metala euskaraz gorpuztu zuen lehen diskoa argitaratu zuen Su Ta Garrek. *Jaiotze Basatia* izena jarri zioten lanari, eta goiburuari men eginez, euskal kantagintzaren *hall of fame*-ra igaro diren zenbait kantu ekarri zituzten: *Mari* eta *Jo ta ke*, kasu. Hamaika abesti berri eta aurretik aipatutako *Haika Mutil*-en bertsioa bildu zituzten. Kantuen hitzak, garai latz haien isla eta lekukotasun zuzena dira. Gauzak nolakoak diren, 30 urteren ondoren, eta estudioko beste hamazazpi lan grabatu badituzte ere, Su Ta Garren lanik adierazgarriena bihurtu da *Jaiotze Basatia*.

Bi urte beranduago argitaratu zuten *Hortzak Estuturik* diskoa, lehen lanaren ildo beretik. Euskal Herriko eszenan aurreko lanekin leundutako irudia egonkortzeko eta Mikel Gorosabelen EH Sukarrarekin batera Europatik lehen bira egiteko baliatu zuen disko hau Eibarko laukoteak. Azken kontzertua etxean eskaini zuten, eta haren lekuko dugu Eibarren zuzenean grabatu zuten VHS bideo-zinta: *More Volumen Tour – Su Ta Gar zuzenean*. Kanta bat nabarmentzearren, euskal baladen bildumako parte den *Itxaropena* aipatu beharra dago. Akustikoa eta metala ederki uztartzen zekiela erakutsi zuen Su Ta Garrek.

**BORXAREN ISTRIPUA** Garai onak ziren Eibarko taldearentzat. 1993an *Munstro Hilak* diskoa kaleratu zuten, lau urtetan hirugarrena. 1995eko maiatzean, ordea, laugarren lana grabatzeko dena prest zutenean, taldeak kolpe latza jasan zuen. Borxa Arrillaga, taldeko bateria joleak, eszenatokietatik behin betiko alboratuko zuen istripua izan zuen. Euskal musikako lehen bateria izarra izan zen Borxa, bi bonborekin eraikitako bateria ikusgarriaren batuta gaztea. Ezbeharrak zuzenekoetatik kanpo utzi bazuen ere, Su Ta Garren oinarrietako bat izaten jarraitu du Arrillagak, eszenatoki gainean ikusten ez dugun guzti hori



1



4



7



9




















**1-2.** Aitor Gorosabel eta Xabi Bastida, taldearen lehen kontzertuetan, 1989an. **3-4.** Jatorrizko laukotea, Borxa Arrillaga eta Asier Osororekin, 1990ean. **5.** Gorosabel, Europako birako emanaldi batean, 1991n. **6.** Taldea 1993an, estudioan grabatzen ari zela. **7.** Aitor Gorosabel abeslaria, 2004ko Gazte Topagunean. **8.** Gorosabel eta Bastida, 30 urtez Su Ta Garren egon diren bi kideak, zuzenean, 2012an. **9-10.** Gorosabel eta Bastida, 2014ko kontzertu batean. **11.** Taldearen egungo formazioa, Igor Diez eta Galder Arrillagarekin. SU TA GAR







lantzen. Ordura arte grabatutako bideoei esker, gaur egun ikusgai dugu sarean Borxak abiatu zuen perkusioaren iraultza. Bere anaia Galderrek hartu zuen Su Ta Garren bateriaren lekukotza, eta tarte batez Iban Zugarramurdik ordezkatu bazuen ere, egun berak jarraitzen du Borxaren tronuan.

1996an iritsi zen laugarren diskoa, *Sentimenak Jarraituz* izenarekin eta hamarkada bukatu baino lehen, beste bi lan argitaratu zituzten: *Agur jauna gizon txuriari* 1997an eta *Homo Sapiens?* 1999an. Tartean eginak zituzten maketaren bi bertsioak bat eginez berrargitaratu zituzten, *Su Ta Gar* izenarekin. Estudioko zazpi lan argitaratu ondoren, zuzeneko lehen diskoaren txanda iritsi zen 2001ean: *Jo Ta Ke*. Ordura arte sortutako abestiak bildu zituzten zuzeneko bi CDtan, baita La Polla Recordsen *No somos nada* abestiaren bertsioa ere, gazteleraz grabatu duten abesti bakarra.

*Itsasoz beteriko mugetan*, 2003an argitaratutako diskoak, Su Ta Garren garapenaren zenbait ebidentzia islatu zituen: Aitorren ahotsa hastapenetakoa baino oldarkorragoa eta grabeagoa da eta letrak poetikoagoak dira. 2006an, baina, *Jainko Hilen Uhartean* lanarekin 90eko estiloari berrekin zioten, metal gogorrera bueltatuz eta gizarte kontenporaneoaren fluxuak utzitako konpromisozko letrak kantatuz. Gorosabelek hasieratik erakutsitako bere bertuteak bereziki nabarmentzen dira disko honetan, gitarren soloak *riff* gogorren gainetik nabarmenduz.

**METAL HOTSAK IRUDITAN** Ondare musikalaz gain, zuzeneko musikaren irudien artxibategi handia utzi du Su Ta Garrek. Aipatutako Eibarreko VHS-az aparte, nabarmentzekoak dira *Homo_Sapiens? Tour'00* birako kontzertuetako irudiak jasotzen duten VHS eta DVDa, 2007an argitaratutako *Une Iraunkorrak* DVDa eta batez ere taldearen 20. urteurrenean Durangoko Plateruenean grabatutako zuzeneko bi diskoak eta kontzertua oso-osorik batzen duen DVDa. Iaz Donostiako Victoria Eugenia Antzokian emandako kontzertuaren grabazioa aurkeztu zuten *Su Ta Gar antzokietan* bildumarekin.

Taldeak zenbait aldaketa izan ditu urte guzti hauetan. Borxa izan zen, istripuak behartuta, taldea utzi zuen lehena, musikaren sorkuntzari dagokionez, behintzat. Asier Osoro baxujoleak 2008an esan zuen agur eta haren ondoren Igor Oyarbide eta David Zarzosa pasa dira taldetik. Igor Diezek du orain baxuaren ardura. Gorosabelek eta Bastidak ez dute Su Ta Garren gitarra erantzi 30 urtetan.

Abestien sorkuntzan murgilduta jarraitu dute azken urteetan Su Ta Garrekoek, *Ametsak Pilatzen* (2011) eta *Bizirik Gaude* (2013) lanekin. Askotariko jarraitzaileak izan ditu taldeak urte guzti hauetan, eta taldeak ere askotariko bizipenak izan ditu. Biei kasu eginez, zalegoari eta bizipenei, edo besterik gabe, behar edo nahi zutelako, balada diskoa argitaratu zuen Su Ta Garrek 2016an: *Maitasunari Pasioa*, estudioko azken lana. Bi hamarkada luzeren ondoren, disko ezberdina egiten ausartu ziren. Heavy metala piano eta hammondarekin aberastuta, pop pilula esplosiboak leundu zituzten disko horretan. Euskal Herriko antzokietan zehar egindako bira batekin defendatu zuten lana, ondoren zuzeneko disko eta DVDarekin gorpuztu zutena.